# Jesús Frías

**Arkauteko Mendikoi Nekazaritza Eskolako zuzendaria**
**Director de la Escuela Agraria Mendikoi, de Arkaute.**



## "Etengabeko aldaketetara moldatzean datza erronka"
## "El reto fundamental es adaptarse a los continuos cambios"

**Jesus Fríasek laster utziko du Arkauteko Nekazaritza Eskolako zuzendaritza. 1970an zentroa sortu zenez geroztik egin du lan bertan. Hortxe nozitu ditu Lanbide Heziketaren zailtasun orokorrak eta nekazaritzak berezkoak dituenak.**

**Jesús Frías dejará próximamente la dirección de la Escuela Agraria Mendikoi de Arkaute, en la que se encuentra desde su fundación en 1970. Allí ha vivido las dificultades de la Formación Profesional y las propias del sector agrícola.**



**– Nola sortu zen nekazaritzari emandako Lanbide Heziketako zentroa?**

– 1969an, landa-inguruneetako gazteentzako eskola txiki bat irekitzea planteatu zen, oinarrizko ikasketak amaitu ondoren prestakuntza berezia izan zezaten. Niri agindu zidaten Arkauteko zentro hau irekitzea, eta hementxe nago 1970 urteaz geroztik. Agindua jaso nuenean, Gipuzkoako Zabalegi eskolara joan nintzen. Jaime Zubiarekin harremanetan jarri, eta han erabiltzen zuten eredua ezagutu nuen. Txandakako sistema zen: ikasleak astebete edo pare bat aste igarotzen zituen eskolan, eta gero, bi astez, bere etxean egiten zuen lan. Familiarekin harreman estua geneukan; maiz joaten ginen ikasleen etxeetara, hango lanak nola zihoazen ikustera. Egun, sistema hura mikrokreditoetan oinarrituta zegoela esango genuke. Eskolaren kontrolpean, familiarekin adostutako hainbat lan egiten zituen ikasleak. Inplikazio handia zegoen, irakaskuntza guztiz bokazionala zen. Garai haietan, nekazaritzak ez zuen zerikusirik industriarekin. Gizarteak erabat gutxietsita zeukan nekazaritza, hirugarren edo laugarren mailakotzat jotzen zuen. Landa-ingurunetik hiribururako emigrazio handia zegoen. Garapen industrialean murgilduta zegoen Gasteiz. Hortaz, asko landu genuen

**– ¿Cómo surgió un centro de Formación Profesional agraria?**

– En el año 1969 se planteó la posibilidad de abrir una pequeña escuela para jóvenes que estaban en el mundo rural, proporcionándoles una formación después de la enseñanza básica. Me encargaron que abriera un centro, que es éste de Arkaute y desde 1970 estoy aquí. Entonces me desplacé a Gipuzkoa, a Zabalegi, donde contacté con Jaime Zubía y vi el modelo que utilizaban. Era un sistema alternante en el que el alumno estaba una o dos semanas en la escuela y luego durante dos semanas trabajaba en su casa. Teníamos mucho contacto con la familia; se hacían visitas a sus casas para ver cómo iban las tareas. Era un sistema que hoy llamaríamos de microcréditos, con una serie de tareas que el alumno hacía controlado por el centro y de acuerdo con la familia. Había mucha implicación, era una enseñanza muy vocacional. El sector agrario no tenía nada que ver con el industrial. Socialmente estaba desprestigiado, se consideraba como de tercera o cuarta categoría. Había una fuerte emigración del campo a la ciudad. Era la época del desarrollo industrial de Vitoria. Ahí trabajamos mucho los temas de actitudes, haciendo ver a los jóvenes que

"Gizarteak erabat gutxietsita zeukan nekazaritza, hirugarren edo laugarren mailakotzat jotzen zuen"

"El sector agrario estaba socialmente desprestigiado, se consideraba como de tercera o cuarta categoría"

jarreren alorra, gazteei ikuskaraziz nekazaritza hiriko lana bezain duina zela, eta bazegoela nekazaritzatik etenik ekonomikorik ateratzeko modurik. Nahiko ondo aritu ginen. Hain zuzen ere, nekazaritzan jarraitzen dute orduko ikasle askok.

**– Aro berri bat heldu zen gero…**

– 90eko hamarkadaren hasieran, hezkuntzari buruzko lege berria medio, sisteman integratu ginen eta, nolabait esateko, zera organizatuago eta egituratuago batean sartu ginen. Irakaskuntzan zein nekazaritzan, garapen teknologiko handiko urteak izan ziren.

**– Krisialdiak ere izan zituen prozesu hark.**

– Aurreneko krisialdiak sozialak ziren. Gazte jendeak deabruak harturik egiten zuen ihes soroetatik, nekazaritzaren potentziala ahulduz. Aldi berean, garapen tekniko handiko garaiak izan ziren haiek nekazaritzarentzat. Orain, ezin da ukatu birmoldaketa halako bat gertatu denik. Garai batean, 20 hektareakoak ziren nekazaritza-ustiapenak, eta egun 100 ingurukoak dira. Industrian gertatu den birmoldaketa bera nozitu du nekazaritzak; mantsoagoa, baina.

**– L.H.-ko zentro modura, nolakoa izan da Mendikoiren bilakaera?**

– Baliabide teknikoak eskuratzen joan ginen. Txandakatze sistema bertan behera utzi eta, egun, ikasleek eskola-ordutegia dute aste osoan. Prestakuntzari dagokionez, jauzi kuantitaboa egin zen 90eko hamarkadan. Hezkuntza sistema aldatu zen, DBH agertu zen, eta ikaslea 16 urterekin hasi zen heltzen L.H.-ra, 14 urterekin heldu beharrean; ikasle helduagoak ziren, beraz. Egun, ustez, oinarrizko prestakuntza du ikasleak DBH-ra heltzen denerako, eta L.H.-k alor teknologiko-praktikoan jartzen du arreta. Egoera honek badu abantailarik: ikasleak helduagoak dira, prestakuntza kultural eta zientifiko sendoa dute, eta lanbidearen inguruko alor guztiak jorratzen dira batik bat. Horri irakaskuntzaren alde praktiko nabarmena -%40 ingurukoa da, eta zati bat enpresetan garatzen dagehitzen badiozu, handiagoa da ikaslearen profesionalizazioa eta lan-munduarekin duen inplikazioa.

**– Honelako nekazaritza eskola bateko ikasleek, ba al dute irtenbide profesionalik?**

– Segituan aurkitzen dute lana gure ikasleek. Azken bost urteotan, %71-%85 bitartekoa izan da lanean txertatze indizea. Portzentaje horiei dagozkien ikasleek ikasketak bukatu eta hiru hilabetera lana dutela esan nahi du horrek. Egia da, dena den, gaur egungo lan baldintzen ondorioz horren ondo prestatutako ikasle horien nahiak ez direla asebetetzen. Baina alor guztietan gertatzen da hori, ez bakarrik Lanbide Heziketan. Nork bere kontura lan



“Nekazaritzaren alorrean inbertsio handien beharrik ez duten sektore asko daude, hala nola berotegietako laborantza intentsiboa edo lorezaintza”

"Dentro de la rama agraria hay muchos sectores que no requieren de grandes inversiones, como los cultivos intensivos en invernadero o la jardinería"

el trabajo del campo era tan digno como el de la ciudad, que económicamente se podían obtener rendimientos. Se trabajó bastante bien. De hecho, hoy en día muchos de aquellos alumnos siguen trabajando en el campo, son agricultores.

**– Luego llegó una fase nueva…**

– A primeros de los 90 y con la nueva ley de educación nos integramos en el sistema y de alguna manera entramos en algo mucho más organizado, más estructurado. Fueron años de desarrollo tecnológico muy fuerte, tanto en el campo como en la enseñanza.

**– En este proceso hubo también momentos de crisis.**

– Las primeras crisis eran de tipo social. La gente joven se iba del campo privándolo de su potencial. Fue también una etapa de desarrollismo técnico del campo. Ahora no cabe duda de que se ha producido una reestructuración. Antes las explotaciones agrarias eran de 20 hectáreas y ahora prácticamente están con 100. La reestructuración que ha habido en la industria se ha producido en el sector agrario, pero más despacio.

**– Como centro de F.P., ¿cómo ha sido la evolución de Mendikoi?**

– Nos fuimos dotando de medios técnicos. Se abandonó la alternancia, estamos permanentemente en horario escolar durante toda la semana. En los años 90 se produjo un salto cualitativo en cuanto a formación. Se cambia el sistema educativo, aparece la ESO y el alumno accede a la Formación Profesional con 16 años en vez de a los 14, con una madurez mayor. Ahora el alumno que llega de la ESO se supone que ha adquirido ya una formación básica y la F.P. se centra en el área tecnológico práctica. La ventaja es que partes de un alumno más maduro, con una formación cultural-científica buena y se refuerzan todas las áreas de lo que es la profesión. Si a eso le añades que hay un contenido práctico muy fuerte en las enseñanzas,

egiten duenean, bestalde, beharrezkoak diren inbertsioez gain lurraren balioa ere hor dago. Baserria, ekoizpenerako tresna ez ezik, familiaren oinarria ere izan da. Hortaz, zaila da gazte batentzat mundu horretan sartzea, are zailagoa alorrarekin harremanik ez badu. Une honetan, GAZTENEK laguntza-plan integralaren bidez ari da sustatzen Nekazaritza Saila gazteak nekazaritzan hastea Beste arazo bat ere bada. Nekazaritza, normalean, lehengaiak edo balio erantsi txikiko gaiak ekoizten dituen sektorea da, nahiz eta egun horiek izan ondo funtzionatzen duten ondasunak.
Esate baterako, gazta egiten duenak transformatu egiten du esnea, balioa eransten dio produktuari. Produktu labeldunak ere ondo ari dira funtzionatzen. Joera horiek sektorean zein prestakuntzan integratzeko modua bilatu behar da.

**– Errealitatearen erritmoa aldatu.**

– Bai. Azken etapa honetan asko teknifikatu da nekazaritza, eta baita gure zentroak ere. Nekazaritzaren alorreko joera berriei egin behar diegu jaramon, kalitate bereizgarria duten produktuen bidetik, produktu transformatuen bidetik, produktuari balioa erantsiz.

**– Garai bateko ikasleak sektorekoak ziren. Eta egungoak?**

– Egun, %40 sektorekoak dira eta %60 ez, nahiz eta gehienek izan harremanen bat nekazaritzarekin. Ohikoa da herrian lurrak dituzten aitona-amonak dauzkaten ikasleak aurkitzea. Gurasoak herrira joan ziren, eta semeak ere itzuli egin nahi du. Nekazaritzan, gainera, inbertsio handien beharrik ez duten sektore asko daude, hala nola berotegietako laborantza intentsiboa eta lorezaintza. Lorezaintza asko garatzen ari den ziklo berezia da. Alor oso zabala da, landareen ekoizpena, soropilen zaintza –loretegietakoa zein futbol edo golf zelaietakoa-, eta beste barne hartzen dituena.

**– Zein erronka ditu egun Lanbide Heziketak?**

– Erronka nagusia gizartearen etengabeko aldaketetara egokitzean datza, teknologia berrien ezarpenean aurrenekoak izatean.

**– Baina, zein puntutaraino da ikuspegi hori bukolikoa eta zein puntutaraino erreala?**

Kaletarrek landa-ingurunearen ikuspegi bukolikoa dute, bai, baina nekazaritza gogorra da, ez da ordutegi finkoak dituen lan sistematizatua. Hemen badituzu bolada euritsuak, ureztatzera behartzen zaituzten bero handiko boladak; landareen eta animalien ziklo biologikoetara egokitu behar duzu, noski... Horrez gain, garrantzitsua da gizarteari erakustea nekazaritzak badituela aktibo ukiezinak, ingurune natural osasuntsua, paisaia, bideak, gure gizartearen funtsa den nekazaritza-kultura… Hiri-giroko jendeak doakoak izango balira bezala ikusten ditu, baina herrialde aurreratuetan nekazariari aintzat hartzen zaio hori, eta konpentsazioak ere jasotzen ditu horren truke. Azken batean, hori da gure herriko nekazaritza sektoreko kide diren eta izan diren pertsonei euren ahaleginen eta lanaren truke zor diegun bidezko ordaina.



"Produktu transformatuen edota kalitate bereizgarria duten produktuen inguruko nekazaritza-joera berriei egin behar diegu jaramon"

"Tenemos que atender las nuevas tendencias agrarias hacia un producto transformado o de una calidad diferenciada"

en torno al 40%, de las que una parte se desarrolla en empresas, eso ya implica una mayor profesionalización e implicación en el mundo laboral del alumno.

**– Los alumnos de una escuela agraria como esta, ¿tienen salidas?**

– Nuestros alumnos encuentran trabajo rápidamente. El índice de inserción laboral ha oscilado entre el 71 y el 85% durante los últimos cinco años, lo que significa que a los tres meses de haber finalizado los estudios ese porcentaje ha encontrado trabajo. Es cierto que, como ya es habitual en todos los ámbitos, no sólo en la F.P., estos alumnos tan bien preparados no ven colmadas sus expectativas profesionales y humanas por las condiciones laborales actuales. En el trabajo por cuenta propia, además de las inversiones necesarias, hay un valor de la tierra. El caserío ha sido algo más que un medio de producción, la base de la familia. Entonces, cuando un joven quiere acceder a ese medio es muy complicado, dificultad que se acentúa si éste no tiene relación con el sector. Ahora se está trabajando desde el Departamento de Agricultura para promover el acceso de jóvenes al sector a través de GAZTENEK, un plan integral de apoyo a la instalación de jóvenes en el sector agrario. Otro problema es que el agrario es un sector primario que produce en general materias primas o con poco valor añadido cuando estos son los bienes que están funcionando bien. Por ejemplo, el que hace queso, transforma la leche, añade un valor al producto. También van bien los productos con label. Hay que buscar la integración de estas tendencias en el sector y en la formación.

**– Cambiar al ritmo de la realidad.**

– Sí. En esta última etapa el mundo agrario se tecnifica mucho y también nuestros centros. Tenemos que atender las nuevas tendencias agrarias en nuestro país hacia un producto de calidad diferenciada, hacia un producto transformado, añadiendo valor al producto.

**– Los alumnos de antaño eran del sector. ¿Y los de la actualidad?**

– Ahora son un 40% del sector y un 60% que no pertenecen a él, aunque la mayoría tienen relación. Es habitual encontrar alumnos con sus abuelos en el pueblo, donde tienen tierras. Los padres se marcharon del pueblo y el hijo quiere regresar. Dentro de lo que es la rama agraria hay muchos sectores que no requieren de grandes inversiones, como los cultivos intensivos en invernadero, la jardinería, con un campo amplísimo que también abarca la producción de plantas, el tema de céspedes, desde el de jardines hasta el de campos de fútbol o de golf,…

**– ¿Qué retos tiene hoy la Formación Profesional?**

– El fundamental es adaptarse a los continuos cambios de la sociedad, estando los primeros en la implantación de nuevas tecnologías

**– Pero, ¿hasta qué punto es una visión más bucólica que real?**

– El mundo urbano, sí, tiene una visión bucólica del mundo rural. El mundo rural es duro, no es un trabajo sistematizado con horarios fijos. Aquí tienes una época en la cual llueve, épocas en las que hace mucho calor y tienes que regar y tienes que ajustarte a los ciclos biológicos de las plantas y de los animales lógicamente. Además es importante hacer ver a la sociedad que en el sector agrario, hay algo que son los intangibles, ese medio natural sano, paisaje, caminos, esa cultura rural base de nuestra sociedad, etc. que desde el mundo urbano se percibe como gratuito y que en países más avanzados al agricultor ya se le reconoce, y tiene su compensación, que no es mas que el justiprecio del esfuerzo y el trabajo de las personas que han pertenecido y pertenecen al sector agrario de nuestro país.